



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

---

VII. legegintzaldia

Iruña, 2008ko apirilaren 30a

40. ZK.

---

### A U R K I B I D E A

#### A SAILA:

##### **Foru lege proiektuak:**

- Foru Lege proiektua, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluari buruzkoa ([2. or.](#)).
- Foru Lege proiektua, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko osasun arloko langile diplomadunen lanbide karreraren sistema ezarri, eta finantzabiderako kreditu gehikuntza onesten duena. Aurkeztutako zuzenketak ([9. or.](#)).

#### B SAILA:

##### **Foru lege proposamenak:**

- Foru Lege proposamena, osasun laguntza espezializatuko itxaronaldien bermeei buruzkoa. Aurkeztutako zuzenketak ([13. or.](#)).

---

**A saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

## **Foru Lege proiektua, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluari buruzkoa.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko apirilaren 28an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Foru Diputazioak, 2008ko apirilaren 14an hartutako erabakiaren bidez, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluari buruzko Foru Lege proiektua igorri du Nafarroako Parlamentura.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 126. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

### **ERABAKIA:**

**1.** Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluari buruzko Foru Lege proiektua prozedura arruntari jarraikiz izapidetzea.

**2.** Proiektu horretaz irizpena emateko ahalmena Hezkuntza Batzordearen esku uztea.

**3.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denean, **hamabost egun balioduneko epea hasiko da eta 2008ko maiatzaren 26ko eguerdiko hamabietan bukatuko da.** Epe horretan, Erregelamenduko 127. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahal izango dituzte proiektuari.

Iruñean, 2008ko apirilaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

## **Foru Lege proiektua, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluari buruzkoa**

### **ZIOEN AZALPENA**

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 47. artikuluan ezartzen denez, Nafarroaren eskumena da irakaskuntza arautzea eta administratzea maila, gradu, modalitate eta espezialitate guztietan, ezertan ukatu gabe Konstituzioan arlo honi buruzko aginduetan ezarritakoa, horiek garatzen dituzten lege organikoak eta Estatuak dituen eskumenak, ikasketa eta lanbide tituluak eskuratu, eman eta homologatzeko baldintzak arautzeari eta horiek bete eta bermatzeko goi mailako ikuskeraren dagokienez.

Beste alde batetik, Unibertsitateari buruzko abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoaren 14. artikulua xedatzen du autonomia erkidegoko legeak arautuko dituela Gizarte Kontseiluaren osaera eta eginkizunak, bai eta kideak izendatuko ere, berak ezarritako parametroen barruan.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluari buruzko azaroaren 9ko 20/1994 Foru Legea onetsi zuen, baina Unibertsitateari buruzko 2001eko Lege Organiko berria eta 2007an horrek izandako aldaketa direla-eta nahitaezkoa da legeria Gizarte Kontseiluaren kontzepzio berrira egokitzea.

Gizarte Kontseilua gizarteak unibertsitatean parte hartzeko organoa da, eta gizartearen eta unibertsitatearen arteko harremanetarako elementua izan behar du.

Gizarte Kontseiluari dagokio Nafarroako Unibertsitate Publikoko jardura ekonomikoak eta zerbitzuen errendimendua eta kalitatea gainbegirtzea, bai eta Nafarroako gizarteak unibertsitatea finantzatzeko laguntza eman dezan sustatzea ere.

Horrez gain, Gizarte Kontseiluak lagundu behar dio Nafarroako Unibertsitate Publikoari Europako goi mailako Hezkuntzaren Esparru berria eraikitzen, eta, halaber, Unibertsitatearen eta haren ingurune kultural, profesional, ekonomiko eta sozialaren arteko harremanak bultzatu behar ditu, unibertsitatearen kalitatea hobetze aldera.

Foru lege honen xedea Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluaren izaera, helburuak, eskumenak, antolaketa, funtzionamendua eta osaera arautzea da.

## I. KAPITULUA

### Xedea eta aplikazio eremua

#### 1. artikulua. Xedea.

Foru lege honen xedea Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluaren izaera, helburuak, eskumenak, antolaketa, funtzionamendua eta osaera arautzea da.

## II. KAPITULUA

### Izaera, helburuak eta eskumenak

#### 2. artikulua. Izaera.

Gizarte Kontseilua gizarteak unibertsitatean parte hartzeko kide anitzeko organoa da, eta Nafarroako gizartearen eta Nafarroako Unibertsitate Publikoaren arteko harremanetarako elementua izan behar du.

#### 3. artikulua. Helburuak.

Gizarte Kontseiluari dagokio Nafarroako Unibertsitate Publikoko jarduera ekonomikoak eta zerbitzuen errendimendua eta kalitatea gainbegiratzeari, bai eta Nafarroako gizarteak Nafarroako Unibertsitate Publikoa finantzatzeko laguntza eman dezan sustatzea ere.

#### 4. artikulua. Eskumenak.

Unibertsitateei buruzko abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoan ezarritakoaren esparruan, eta Unibertsitatearen estatutuetan eta foru lege honetan ezarritakoaz baliatuz, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluaren eskumenekoak dira jarduera ekonomikoak eta zerbitzuen errendimendua eta kalitatea gainbegiratzeari, plangintza eta garapen instituzionala, eta gizartearekiko harremanak sustatzea.

**5. artikulua.** Jarduera ekonomikoak gainbegiratzeko eskumenak.

Hauek dira jarduera ekonomikoak gainbegiratzeko eskumenak:

a) Nafarroako Unibertsitate Publikoaren jarduera ekonomikoak gainbegiratzeari eta hobetzeko proposamenak egitea. Horretarako, Gizarte Kontseiluak Unibertsitateko Barne Auditoria eta Kontrolleko Unitateak legezketasun kontrolari eta efikazia eta eraginkortasun ekonomikoari buruz egindako txostenak jasoko ditu.

Gizarte Kontseiluak eskumen hori betetzeko beharrezkotzat jotzen dituen txosten guztiak eskatu ahal izanen dizkio Nafarroako Unibertsitate Publikoari.

b) Gobernu Kontseiluak proposaturik, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren urte anitzeko programazioa onestea.

c) Urte anitzeko programazio hori garatzeko Nafarroako Unibertsitate Publikoak eta Nafarroako Gobernuak izenpetzen dituzten finantzaketa hitzarmenak edo programa-kontratuak hobetzeko proposamenak egitea eta egindako negoziazioen berri izatea aldiro. Hitzarmen edo programa-kontratu horietan adierazita egonen dira, gutxienez, helburuak, finantzabideak, ebaluazio sistema eta helburuen betetze-maila.

d) Gobernu Kontseiluak proposaturik, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren urteko aurrekontua eta haren aldaketak onestea. Aurrekontuari eta hura betetzeko arauari erantsiko zaie Nafarroako Gobernuan unibertsitatearen arloko eskumena duen departamentuak eginiko aldeko txostena, aurrekontuko langileriaren kostuari buruzkoa, eta lortu nahi diren helburuak eta haien kostua biltzen dituen memoria bat.

e) Gobernu Kontseiluak proposaturik, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Plan Estrategikoaren finantzabidea onestea.

f) Nafarroako Unibertsitate Publikoaren urteko kontuak onestea, bai eta urteko memoria ekonomikoa, programaturako helburuen betetze-maila eta aurrekontuko kostuak izandako desbideratzeak azalduta.

g) Kasuan kasuko organoak onetsi aurretik, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren menpeko entitateen urteko aurrekontua baimentzea, bai eta haien kapitalean nahiz ondare-funts baliokidean partaidetza handiena Nafarroako Unibertsitate Publikoarena den entitateena ere, merkataritzako legeria edo, haien araubide juridikoa dela-eta, entitate horiek men egin behar dioten beste bat deusetan ukatu gabe.

h) Artikulu honen aurreko letran aipaturako entitateen urteko kontuak onestea.

i) Gobernu Kontseiluak proposaturik, Unibertsitateko irakasle eta ikertzaileentzat oro har ezarritakoen gehigarri diren lansari kontzeptuen banakako atxikipena erabakitzea, aplikatzekoak diren arauen eta xede horrekin Nafarroako Gobernuak onetsiko dituen mugen barruan, eta Nafarroako Foru Komunitateko legeak ezartzen duen kanpoko ebaluazio organoak merezimenduak baloratu ondoan.

j) Irakaskuntza berekien eta titulu ofizialak lortzeko bideratuak ez diren ikasketen prezioak eta salbuespenak finkatzea, bai eta Unibertsitateak ematen dituen irakaskuntzaz kanpoko zerbitzuek eta unibertsitateko instalazioak erabili edo lagatzekoak ere.

k) Nafarroako Unibertsitate Publikoak bere baliabide arrunten kontura ikasketetarako ematen dituen beka, laguntza, salbuespen eta ikasketetarako kredituen politikaren jarraibideak ezartzea, publizitate, merezimendu eta gaitasunaren printzipioei jarraikiz.

l) Nafarroako Gobernuaren organo eskudunei proposatzea, onetsi ditzan, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren, haren menpeko entitateen zein haien kapitalean nahiz ondare-funts baliokidean partaidetza handiena Nafarroako Unibertsitate Publikoarena den entitateen zorpetze jarduketa guztiak.

m) Gobernu Kontseiluak proposaturik, kreditu berezia edo kreditu gehikuntzak ematea onestea, baldin eta hurrengo ekitaldira geroratu ezin den gastu bat egin beharra badago eta horretarako krediturik ez badago aurrekontuetan, eta dagoen kreditua nahikoa ez bada.

n) Kapitaleko gastuak Nafarroako Unibertsitate Publikoaren gastuen aurrekontuko beste kapitulu batera transferitzeko baimena ematea.

ñ) Unibertsitateko organo eskudunak proposaturik, baimena ematea Nafarroako Unibertsitate Publikoari ondoko hauetarako: ondasun higiezinak erosteko, erakundearen ondare-ondasun higiezinak eta aparteko balioa duten ondasun higigarriak eta bere helburuak lortzeari lotzen zaizkion gainerakoak besterendu edo erabiltzeko eta Nafarroako Unibertsitate Publikoaren jabari publikoko ondasunak desafektatzeko, baldin eta haien balioa Gizarte Kontseiluak ezartzen dituen mugetatik gorakoa bada. Horretarako, Gizarte Kontseiluak, urte natural bakoitzeko lehenbiziko hiruhilekoan, entitatearen ondarea osatzen duten ondasunen inbentarioa jasoko du, aurreko ekitaldiko abenduaren 31n eguneratua

o) Estatuko edo Foru Komunitateko legeria indardunak bere esku utzitako beste edozein.

**6. artikulua.** Zerbitzuen errendimendua eta kalitatea gainbegiratzeko eskumenak.

Hauek dira zerbitzuen errendimendua eta kalitatea gainbegiratzeko eskumenak:

a) Nafarroako Unibertsitate Publikoaren errendimenduaren eta kalitatearen ebaluazioa gainbegiratzeko, bere esparru guztietan, eta hobetzeko proposamenak egitea.

b) Nafarroako Unibertsitate Publikoaren kalitate plana prestatzeko lanetan parte hartzea eta proposamenak egitea zerbitzuen kalitatea eta eraginkortasuna hobetzeko.

c) Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakasle- en eta ikertzaileen lanaren barne nahiz kanpoko ebaluazioen emaitzak ezagutzeko eta hobetzeko neurriak proposatzea.

d) Estatuko edo Foru Komunitateko legeria indardunak bere esku utzitako beste edozein.

e) Nafarroako Unibertsitate Publikoaren kontuak Nafarroako Comptos Ganberak auditatzen ez dituen urteetan, Gizarte Kontseiluak, Gobernu Kontseiluarekin ados, kanpoko finantza auditoria bat eskatu ahal izanzen du.

**7. artikulua.** Plangintza eta garapen instituzionalaren eskumenak.

Hauek dira plangintza eta garapen instituzionalaren arloko eskumenak:

a) Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Plan Estrategikoaren proiektuaren prestaketa lanetan parte hartzea eta Gobernu Kontseiluarekin adostea.

b) Nafarroako Unibertsitate Publikoko errektorearekin gerentearen izendapena adostea.

c) Ingurune sozialaren behar akademikoei erantzuten dieten titulu ofizialak lortzera bideratutako irakaskuntza berriak ezartzeari buruzko txostena egitea.

d) Unibertsitateen Kontseiluak aurretik txostena emanik, Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakasleak mailaz igo eta bertan irauteko arauak onestea, ikasketa mota bakoitzaren ezaugarriak kontuan hartuz betiere.

e) Txostenak egitea eskolak eta fakultateak sortu, aldatu eta kentzeko proposamenei eta unibertsitateko titulu ofizialak, Espainia osoan balio dutenak, lortzera bideratutako ikasketak ezarri eta kentzeko proposamenei buruz, Unibertsitateei buruzko abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoaren 8. artikuluekin bat.

f) Txostenak egitea unibertsitateko ikerketa-institutuak, ikerketa erakundeak edo zentroak, publikoak nahiz pribatuak, Nafarroako Unibertsitate Publikoari atxikitze edo atxikipena kentzeko proposamenei buruz, Unibertsitatei buruzko abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoaren 10. artikuluekin bat.

g) Txostenak egitea ikastetxe publikoak edo pribatuak Nafarroako Unibertsitate Publikoari atxikitze proposamenei buruz, titulu ofizialak, Espainia osoan balio dutenak, lortzera bideratutako ikasketak ezartzeko, Unibertsitatei buruzko abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoaren 11. artikuluekin bat.

h) Nafarroako Unibertsitate Publikoak, bakarrik edo beste entitate batzuekin batera, edozein mota-tako pertsona juridikoak sortu, aldatu edo desagertzera onestea, eta beste entitate batzuetan parte hartzea ere onestea.

i) Estatuko edo Foru Komunitateko legeria indardunak bere esku utzitako beste edozein.

**8. artikulua.** Unibertsitatearen eta gizartearen arteko harremanak sustatzeko eskumenak.

Hauek dira gizartearekiko harremanak sustatzeko eskumenak:

a) Urteko jarduketa plan bat onestea, unibertsitatearen eta bere ingurune kultural, profesional, ekonomiko eta sozialaren arteko harremanak sustatzeko xedearekin, eta gizarteari ezagutaraztea Nafarroako Parlamentuaren bitartez.

b) Eragile ekonomiko eta sozialen partaidetza sustatzea Nafarroako Unibertsitate Publikoaren irakaskuntzen eta ikerketaren finantzaketan.

c) Unibertsitateko tituludunen lan egoerari eta irakaskuntza berrien eskaera sozialari buruzko azterlanak sustatzea.

d) Nafarroako Unibertsitate Publikoak hitzarmenak egin ditzan sustatzea, xedea ikasleen prestakuntza osatu eta, enpresetan edo bestelako entitate sozialetan lanbide praktikak eginez, unibertsitateko tituludunei laneratzen laguntzea duten entitate publiko eta pribatuekin.

e) Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakaskuntza, ikerketa eta hedapen lana bultzatzea, bereziki produkzioaren sektoreekiko loturari dagokionez, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren, enpresen eta ehun sozialaren arteko ikerketa eta garapen proiektu bateratuen alde eginez, eta unibertsitateko ikerketetan lortutako emaitzen transferentzia eta hedapen politikak ere lagunduz, gizartearen behar eta eskaerei erantzuteko.

f) Sektore profesionalen, sozialen eta ekonomikoaren partaidetza sustatzea, titulu ofizialak eskuratzera bideratutako irakaskuntzak gizartearen behar eta eskaeretara egokitze aldera.

g) Nafarroako Unibertsitate Publikoaren ikasketak arduradunekin batera, etengabeko prestakuntzarako eskaintza bat sustatzea, jardunean ari diren profesionalen zuzendua eta haien premietara egokitua.

h) Unibertsitatearen arloko politikaren garrantziko alderdiei buruzko hausnarketa eta debata sustatzea, unibertsitateko komunitateak eta ingurune sozialak horietan parte har dezaten lortzeko.

i) Nafarroako Unibertsitate Publikoaren eta haren ikasle ohien artean harremanak ezar daitezela sustatzea, loturei eusteko eta unibertsitateko erakundearen aldeko mezenasgo ekintzak bultzatzeko.

j) Gizarte Kontseiluko buruak proposaturik, unibertsitateetako gizarte kontseiluen elkarteetan parte hartzea onestea.

k) Pertsona nahiz erakundeendako laguntzak, sariak, goresmen edo aintzatespenak proposatzea.

l) Estatuko edo Foru Komunitateko legeria indardunak bere esku utzitako beste edozein.

### III. KAPITULUA Antolaketa

#### 9. artikulua. Osaera.

1. Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluak hemeretzi kide izanen ditu.

2. Sei kidek unibertsitateko komunitatea ordezkatzeko dute, honela banatuak:

a) Berezko hiru kontseilukide: errektorea, idazkari nagusia eta gerentea.

b) Gobernu Kontseiluak bere kideen artean hautatutako hiru kide, unibertsitateko komunitatea ordezkatzeko: irakasle bat, ikasle bat eta administrazioko eta zerbitzuetako langileen ordezkari bat.

3. Hamahiru kidek Nafarroako interes sozialak ordezkatzeko dituzte, honela banatuak:

a) Bost kide Nafarroako Parlamentuak gehien-gehienez hautatuak.

b) Bi kide, izendapenaren aurretik Nafarroako Foru Komunitatean egindako azken hauteskunde sindikalen emaitza ofizialen arabera ordezkari gehien lortu dituzten bi sindikatuak bana proposaturik.

c) Bi kide, araudi indardunaren arabera, Nafarroako Foru Komunitatean enpresaburuen elkarte garrantzitsuenek proposaturik.

d) Lau kide, Hezkuntza Departamentuko titularrak proposaturik.

#### **10. artikulua.** Izendapena.

Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluko kideen izendapenak eta kargu-uzteak Nafarroako Gobernuaren foru dekretu baten bidez eginen dira, unibertsitateen eskumena duen kontseilariak proposaturik eta foru lege honen 9. artikuluan aipatutako entitate edo erakundeek aukeratu ondoren.

#### **11. artikulua.** Eginkizunak.

1. Gizarte Kontseiluko kideek, beren eginkizunak betetzeko, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren interes orokorrak hartuko dituzte kontuan, eta foru lege honetako 3. artikuluan aipatzen diren helburuak bete daitezela begiratuko dute.

2. Kontseiluko kideak ez dira aginduz lotuta egonen, eta karguak pertsonalki beteko dituzte. Halere, kargua eskuordetu ahalko diote, idatziz eta bilera jakin baterako, Gizarte Kontseiluko beste kide bati; eskuordetzea orokorra izan daiteke edo eguneko gai zerrendako puntu bakoitzeko botoa adierazita. Antolaketaren eta Funtzionamenduaren Erregelamenduak ezarriko ditu eskuordetzerako baldintzak eta gehieneko kopurua.

3. Gizarte Kontseiluko kideek, Kontseiluko buruaren bitartez, bere eginkizunak betetzeko beharrezkotzat jotzen duten informazioa eta laguntza eskatu ahal dizkiete Nafarroako Unibertsitate Publikoko organoei.

#### **12. artikulua.** Agintaldia.

1. Gizarte Kontseiluko kideak lau urterako izendatu ahal izanen dira, eta jarraian beste behin baidik ez dira hautatu ahal. Arau horretatik kanpo daude berezko kideak.

2. Gizarte Kontseiluko kideek egoera hauetan utziko dute kargua:

a) Agintaldia amaitzean.

b) Ukoagatik edo heriotzagatik.

c) Karguari dagozkion eginbeharrak ez betetzeagatik, artikuluko honen zazpigarren puntuan aurreikusitakoaren arabera.

d) Bateriaezintasunagatik, foru lege honen 14. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

e) Ordezkaritza bertan behera uzteagatik.

f) Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluko kidea izateko behar den izaera edo kargua galtzeagatik.

3. Agintaldia amaituta, Gizarte Kontseiluan interes sozialak ordezkatzeko aukeratutako kideek jardunean jarraituko dute kide berriek jabetza hartu arte.

4. Nafarroako Unibertsitate Publikoko Estatutuek arautuko dute Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Gobernu Kontseiluak Gizarte Kontseilurako izendatutako kideak hautatu eta ordezkatzeko prozedura.

5. Gizarte Kontseiluko berezko kideek kide izaera eragiten duen izaera galtzen dutenean utziko dute kargua.

6. Agintaldia bukatu baino lehen Gizarte Kontseiluko kideren baten tokia hutsik geldituz gero, foru lege honen 9. artikuluan ezarritako prozeduraren bidez beteko da, hiru hilabeteko epean gehienez, eta foru lege honen 9. eta 10. artikuluekin bat. Kide berria aurreko titularrak bete gabe daukan agintaldirako izendatuko da.

7. Gizarte Kontseiluak prozedura bat ezarriko du bere Antolaketaren eta Funtzionamenduaren Erregelamenduan, kideren batek bere eginbeharrak betetzen ez dituztenean izendatu zuen organoari hura ordezteko proposamen arrazoitua egiteko.

#### **13. artikulua.** Eginbeharrak.

Gizarte Kontseiluko kideek eginbehar hauek dituzte:

a) Osoko Bilkuretara eta, zer batzordetako kide diren, horien bilkuretara ere joatea.

b) Karguak direla-eta beren esku utzitako zeregin guztiak betetzea.

c) Barneko eztabaiden gaineko isilpekotasuna eta konfidentzialtasuna gordetzea, bai eta espresuki isilpekotzat jotzen diren gai eta jarduketan ere.

d) Bateriaezintasunari buruzko arauak betetzea, foru lege honekin bat haiengan eragina izan dezaketena, eta Gizarte Kontseiluko buruari jakinaraztea bateraezintasuna ekar dezakeen inguruabar oro, bai hasieratik izandakoak bai ondoren gertatutakoak.

e) Antolaketaren eta Funtzionamenduaren Erregelamenduan ezartzen diren beste guztiak.

#### **14. artikulua.** Bateriaezintasunak.

1. Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluko kideek ezin dute Unibertsitatearekin lanak, zerbitzuak edo hornidurak kontratatzen

dituzten enpresa edo sozietateetako zuzendaritza kargurik bete, ez berez ez tarteko pertsona baten bidez. Bestalde, ezin dute enpresa edo sozietate horien kapitalean 100eko 10 baino gehiagoko partaidetzarik izan. Bateriaezintasun horrek ez die eragiten Unibertsitatei buruzko abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoaren 83. artikuluko 1. eta 2. idatz-zatiekin bat izenpetutako kontratuei.

2. Gizarte Kontseiluan interes sozialak ordezkatzan dituzten kideak ezin dira unibertsitateko komunitateko kideak izan.

#### IV. KAPITULUA Funtzionamendua

##### 15. artikulua. Egitura organikoa.

Hau da Gizarte Kontseiluaren egitura:

a) Osoko Bilkura, Batzorde Iraunkorra, eta Antolaketaren eta Funtzionamenduaren Erregelamenduak ezartzen dituen batzordeak edo Osoko Bilkuraren erabakiz eratutakoak.

b) Kontseiluko burua, idazkaria eta buruordeak, Gizarte Kontseiluko Antolaketaren eta Funtzionamenduaren Erregelamenduak xedatzen duenarekin bat.

##### 16. artikulua. Osoko Bilkura.

Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluaren Osoko Bilkura kontseiluko buruak eta kideek osatzen dute, eta haren eginkizuna da foru lege honen 4. artikuluan aipatutako eskumenei buruzko erabakiak hartzea, deusetan ukatu gabe Gizarte Kontseiluaren gainerako organoei erregelamendu bidez esleitzen zaizkien eginkizunak.

##### 17. artikulua. Batzorde Iraunkorra.

1. Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluak batzorde iraunkor bat izanen du, Antolaketaren eta Funtzionamenduaren Erregelamenduan ezarritakoari jarraikiz izendatua.

2. Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluaren Batzorde Iraunkorraren zeregina da Osoko Bilkuraren eginkizunak bere gain hartzea osoko bilkuren arteko aldian, Antolaketaren eta Funtzionamenduaren Erregelamenduan ezartzen diren arauekin bat.

##### 18. artikulua. Batzordeak.

1. Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluak Osoko Bilkuraren eta batzordeen bidez beteko ditu bere eginkizunak. Batzordeen eginkizunak izanen dira beren gain utzitako gaiei buruzko erabakiak aztertu, eztabaidatu eta Osoko

Bilkurari proposatzea eta, hala behar denean, erabakiak hartzea Osoko Bilkurak eskuordetuta.

2. Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluak ikasketa batzorde bat, ekonomia eta finantza batzorde bat eta gizartearekiko harremanetarako batzorde bat izanen ditu, gutxienez.

a) Ikasketa Batzordeak Nafarroako Unibertsitate Publikoaren jarduera zientifiko eta akademikoa- ren inguruko gaiei buruzko erabakiak aztertu, eztabaidatu eta proposatuko dizkio Osoko Bilkurari.

b) Ekonomia eta Finantza Batzordeak Unibertsitatearen afera ekonomikoen eta finantzabideen arloko gaiei buruzko erabakiak aztertu, eztabaidatu eta proposatuko dizkio Osoko Bilkurari.

c) Gizartearekiko Harremanetarako Batzordeak ingurune sozialarekiko harremanei dagozkien gaiei buruzko erabakiak aztertu, eztabaidatu eta proposatuko dizkio Osoko Bilkurari.

##### 19. artikulua. Kontseiluko burua.

1. Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Gizarte Kontseiluko burua Nafarroako Gobernuak izendatuko du interes sozialak ordezkatzan dituzten kideen artean, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Gizarte Kontseiluko kideen gehiengoak proposaturik.

2. Kontseiluko buruaren agintaldia lau urtekoa izanen da, eta beste agintaldi bakar baterako aukeratu ahal izanen da.

3. Kontseiluko burua Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Gizarte Kontseiluaren ordezkari gorena izanen da.

4. Kontseiluko buruaren eskumena da Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Gizarte Kontseiluaren bilkuretarako dei egin eta bertan buru gisa aritzea, erabakiak eta legeria indarduna betetzen direla begiratzea, eta Antolaketaren eta Funtzionamendu Erregelamenduak ematen dizkion gainerako eginkizun guztiak.

##### 20. artikulua. Kontseiluko buruordea.

Gizarte Kontseiluko buruak buruorde bat edo bi izendatu ahal ditu, lehentasunezko ordenan, Gizarte Kontseiluan interes sozialak ordezkatzan dituzten kideen artean. Kontseiluko buruordea buruaren ordezkari da, kargua hutsik dagoenean, betetzen duena hiltzen bada, bertan ez bada go edo uko egiten badio karguari.

##### 21. artikulua. Idazkaria.

1. Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluko buruak idazkari bat izendatuko du. Izendatua Nafarroako Unibertsitate Publikoko

Gizarte Kontseiluko kidea ez den bat izan ahalko da, eta kasu horretan hizpidearekin bai baina boto-rik gabe ariko da bilkuretan. Idazkariak ez du ikasketa nahiz ikerketa arloko eginkizunik izanen Unibertsitatean.

2. Idazkariak ondoko eginkizun hauek izanen ditu: kontseiluko buruari laguntza ematea Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluaren aferetan, kide anitzeko organoen idazkaritzako eginkizunak betetzea, eta Antolaketaren eta Funtzionamenduaren Erregelamenduak esleitzen dizkion gainerakoak.

**22. artikulua.** Lansariak eta kalte-ordainak.

1. Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluko buruak eta idazkariak Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluak finkatzen dituen ordainsariak jasoko dituzte, kargu horietarako ezarritako dedikazio mailaren arabera.

2. Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluko gainerako kideek, beren eginkizunetan aritzeagatik, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluak dieta eta joan-etorrietarako ezartzen dituen kalte-ordainak kobratuko dituzte.

**23. artikulua.** Antolaketaren eta Funtzionamenduaren Erregelamendua.

1. Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluak bere Antolaketaren eta Funtzionamenduaren Erregelamendua egin eta Nafarroako Gobernuari igorriko dio, onets dezan.

2. Erregelamendu horretan Osoko Bilkuraren bilera ohikoak egiteko maiztasuna finkatuko da, bai eta deialdiak egin, bilerak eratu eta erabakiak hartzeko baldintzak ere.

3. Lege honen 5., 6., 7. eta 8. artikuluetan ezarzen diren onespenez egiteko erabakiak hartzeko erabateko gehiengo beharko da, ezertan ukatu gabe Antolaketaren eta Funtzionamenduaren Erregelamenduan horri buruz aurreikusten dena.

**24. artikulua.** Erabakiak betearazi eta argitaratzea.

1. Unibertsitateko errektoreari dagokio Gizarte Kontseiluak hartutako erabakiak betearaztea. Horretarako, hartutako erabakien egiaztagiria igorriko du idazkariak Errektoregora.

2. Errektoreak aginduko du Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman daitezen araudi indardunaren arabera publizitatea behar duten erabakiak, bai eta beste batzuk ere, Gizarte Kontseiluaren beraren iritziz argitaratzea komeni denean.

**25. artikulua.** Araubide juridiko-administrati-boa.

Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluaren Osoko Bilkuraren erabakiek eta, Osoko Bilkurak eskuordeturik, batzordeek hartutakoek amaiera ematen diote bide administrati-boa, eta zuzenean administrazioarekiko auzien jurisdikzioan aurkatu behar dira, ezertan ukatu gabe aurretiko administrazio errekursoak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeak ezarri bezala.

**26. artikulua.** Aurrekontua eta langileak.

1. Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluak bere aurrekontuaren proiektua eginen du; gero, Unibertsitatearen aurrekontuan sartuko da, Nafarroako Gobernuaren eta Unibertsitatearen arteko finantzaketa hitzarmenean ezarritakoaren barruan.

2. Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluak foru lege honek esleitzen dizkion eginkizunak betetzeko behar diren langileak izanen ditu; horretarako, antolaketa autonomoa izanen du eta beharko duen langile kopurua proposatuko du. Halere, Gizarte Kontseilua ahaleginduko da Nafarroako Unibertsitate Publikoak dituen langileez baliatzen.

**Xedapen Iragankorra.** Behin-behineko araubideak.

1. Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseilua foru lege honek indarra hartu eta hiru hilabeteko epean, gehienez, eratuko da.

2. Foru lege honek indarra hartu baino lehen eraturako Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluak jardunean jarraituko du eta arau honek ematen dizkion eskumenak beteko ditu, kontseilu berria eratu arte.

**Xedapen Indargabetzailea.** Arauak indargabetzea

Indarrak gabe geldituko da Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluari buruzko abenduaren 9ko 20/1994 Foru Legea, bai eta foru lege honetan xedatutakoaren kontrakoak diren maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak.

**Azken xedapenak**

**Lehenbizikoa.** Antolaketaren eta Funtzionamenduaren Erregelamendua.

Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluak bere Antolaketaren eta Funtzionamenduaren Erregelamendua eginen du eratu eta hiru



hilabetera, gehienez ere. Erregelamenduak Nafarroako Gobernuaren onespena beharko du eta indarra hartuko du Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren.

**Bigarrena.** Arau garapena.

Nafarroako Gobernuari baimena ematen zaio

foru lege hau betearazi eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzan.

**Hirugarrena.** Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

## **Foru Lege proiektua, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko osasun arloko langile diplomadunen lanbide karreraren sistema ezarri, eta finantzabiderako kreditu gehikuntza onesten duena.**

### *AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 129. artikuluan ezarritakoa betez, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko osasun arloko langile diplomadunen lanbide karreraren sistema ezarri, eta finantzabiderako kreditu gehikuntza onesten duen Foru Lege proiektuari aurkezturiko zuzenketa Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen agindu dut. Proiektu hori 2008ko apirilaren 4ko 31. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko apirilaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **1. ZUZENKETA**

#### **NAFARROA BAI**

##### **PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

1. artikulua, "xede" aldatzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen den testua:

"1. artikulua. Xede.

Foru Lege honen xede da lanbide karrerako sistema ezartzea eta aplikatzea Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko eta Nafarroako Foru Komunitateko administrazioko gainerako departamentu eta erakunde autonomoetako osasun langile diplomadunei .

Zioak: "Finko" hitza kentzen da, lanbide karrera kasu jakin batzuetan finkoak ez diren langileei ere zabaltzeko.

### **2. ZUZENKETA**

#### **NAFARROA BAI**

##### **PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

"Aplikazio esparrua" izeneko 2. artikuluko 1. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen den testua:

"1. Foru lege honen bidez arauturiko lanbide karreraren sistema Nafarroako Foru Komunitateko administrazioko departamentu eta erakunde autonomoetako lanpostu bat jabetzan duten osasun langile diplomadunei aplikatuko zaie, betiere zerbitzu horri atxikitako langileen berariazko araubideari buruzko urriaren 20ko 11/1992 Foru Legearen eranskinean eta Osasunari buruzko azaroaren 21eko 44/2003 Estatuko Legeko 7. artikuluan –profesional sanitarioen ordenamendua– aipatzen den osasun arloko diplomadunen estamentuan sartutako espezialitateetarako izendatuak badira"

Zioak: Asmoa da osasun langile guztiak sartzea, atxikita dauden departamentua kontuan hartu gabe. Ezin dugu ulertu baldintza berdinetan dauden pertsonen eskubide berdinak ez izatea, Osasun Departamentuan ez goteagatik.

Azaroaren 21eko 44/2003 Estatuko Legea urriaren 20ko 11/1992 Foru Legearen Eranskina ondoengoa da, eta bere 7. artikuluan jasotzen dituen osasun diplomadunen artean dauden titulazio batzuk ez daude aipaturiko eranskin horretan.

Gure iritziz, zorrotzagoa da eta segurtasun juridiko handiagoa dauka 2. artikuluko honetan sartzea, xedapen gehigarri batean aipatzea baino.

**3. ZUZENKETA****NAFARROA BAI****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

“Aplikazio esparrua” izeneko 2. artikuluari 1) bis idatz-zati berri bat gehitzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen den testua:

“1. bis.- Lanbide karreraren sisteman parte hartzeko aukera ere izanen dute bitarteko osasun langile diplomadunek, baldin eta, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan eta Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren departamentu eta erakunde autonomoetan haiei zegokien kategorian bost urtez gutxienez egiazko zerbitzuak eskaini ostean, aukerarik izan ez badute aipaturiko zerbitzu horietan kategoria horretarako hautaketa prozesuetan parte hartzeko, edo betetzen duten plaza ez bada lan eskaintza publiko batean sartu.

Zioak: Aintzat hartuta dagoen bitartekotasun tasa handia dela osasun langile diplomadunen artean, eta orokorrean Osasun Departamentuan, eta administrazioaren ardura izanik plaza horien deialdia egitea, zilegi da bitarteko langileek, gutxienez zehazten diren kasuetan, langile finkoek jasotzen duten antzeko tratua ere jasotzea ordain-sariei dagokienez; izan ere, bitartekotasuna ez da haien ardura.

Berez, badira bitartekotasun egoeran denbora luzea daramaten pertsonak, eta idatz-zati honek arautu behar ditu.

**4. ZUZENKETA****NAFARROA BAI****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

“Aplikazio esparrua” izeneko 2. artikuluari 1) ter idatz-zati berri bat gehitzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen den testua:

“1 ter. Lanbide karreraren ondokoak ere sartu ahal izanen dira: Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan eta Nafarroako Foru Komunitateko administrazio gainerako departamentu eta erakunde autonomoetan dauden lanbide heziketako osasun langileak eta kudeaketa eta zerbitzu alorretan dihardutenak.”

Zioak: Zuzenketa aipaturiko taldea egungo lanbide karreratik kanpo geratzen da. Gure iritziz, talde hori funtsezkoa eta beharrezkoa da, gure Komunitateko departamentuek edo erakundeek behar bezala funtziona dezaten, horientzat lan egiten baitute, eta beraz, ezin dira baztertu.

Xedapen gehigarri bat gehitzeko zuzenketa epe bat proposatzen da eredu hori proposatzeko.

**5. ZUZENKETA****NAFARROA BAI****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

“Definizioa” izeneko 3. artikuluari beste paragrafo bat gehitzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen den testua:

“Halaber, ondokoa erdietsi nahi du lanbide karrerak: errendimendu profesionalean pizgarria izan, etengabeko prestakuntza bultzatu eta bere eraginpean dauden langileak sustatu, eta, laburbilduz, herritarrei zerbitzu hobea eskaintzearen alde egin.

Zioak: Lanbide karrera pizgarri bat da, baina zaila da pizgarri hori zerbitzu publikoen eskaintzaren alorrean errendimendu eta helburuen kontzeptuei lotzea, erakunde pribatuetan gertatzen ez den bezala, izan ere, zerbitzu publikoetan ez dago, edo ez da lehen alorrekoa, irabazi asmoaren kontzeptua. Etengabeko prestakuntza eta langileen sustapena egiturazko helburuak dira, eta lanbide karreraren erregulazio egoki batetik landu behar dira.

**6. ZUZENKETA****NAFARROA BAI****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Seigarren xedapen gehigarria kentzeko zuzenketa.

Zioak: Zorrotzagoa da arauaren aplikazio-eremua horri dagokion idatz-zatian zehaztea, xedapen gehigarri batera baztertu gabe. Segurtasun juridikoa dela-eta, eta definizio zorrotzagoa ematearren, zuzenketa bat egin da bere edukia 2. artikuluan sar dadin. Baina, gainera, agerikoa da xedapen horren testua ez dela behar bezain zabala; izan ere, kanpoan geratzen dira Osasun Departamentuan sartzen ez diren erakunde autonomoetan eta beste departamentu batzuetan osasun zerbitzuak eskaintzen dituzten langileak.

**7. ZUZENKETA****IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA****FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA**

Proiektuari beste xedapen gehigarri bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“Nafarroako Gobernuak, urtebeteko epean, Nafarroako Parlamentura foru lege proiektu bat igorriko du Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutua aldatzeko, non karrera administratiborako sistema bat ezarriko baita arau hori aplikatzen zaien funtzionario publiko guztientzat”

Zioak: 2008ko aurrekontuetan bada kontusail berri bat ezartzen duena, hain zuzen, funtzio publikoko karrera administratiboa; Gobernuak, beraz, garatu beharreko konpromiso bat hartua du. Bestalde, edozein lanbideren karrera administratiboak oinarritzko argudio izan behar du herritarrei arlo publikotik ematen zaizkien zerbitzuak hobetzeko beharra. Funtsezkoa da funtzio publikoan lan egiten duten pertsona guztiak aukera berak izatea helburuak lortzeko eta beren ordainsariak hobetzeko ongi egindako lanaren truke.

Unea da karrera administratiboaren bidez zerbitzu publikoa hobetzeko apustua egiteko, funtzionarioekin batera.

## 8. ZUZENKETA

### NAFARROA BAI

#### PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Lehen xedapen iragankorraren 1. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen den testua:

“1. Osasun langile diplomadunen hasierako sailkapena eginen da...”

Zioak: “Finko” hitza kentzen da, aurretik planteatutako zuzenketekin bat.

## 9. ZUZENKETA

### NAFARROA BAI

#### PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Bosgarren xedapen iragankor berri bat gehitzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen den testua:

Bosgarren xedapen iragankorra.

Lege honek indarra hartzen duenetik bost hileko epean, Nafarroako Gobernuak hori garatzeko arauak ezarriko ditu, eta onartu eginen du lanbide karreraren eredia Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan eta Nafarroako Foru Komunitateko gainerako departamentu eta erakunde autonomoetan dauden lanbide heziketako profesional sanitarioentzat eta kudeaketa eta zerbitzuen alorrean dihardutenentzat, 1) ter artikuluan jasotakoari jarraikiz.

Zioak: Gure iritziz zilegi da legea aipaturiko langileei ere zabaltzea, langile horiekiko bazterketa saihesteko; baina, gainera, bere ereduak garapen bat eskatzen du, horretarako ezartzen diren arau egokien bidez.

## 10. ZUZENKETA

### NAFARROA BAI

#### PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Hau da proposatzen den testua:

“Seigarren xedapen iragankorra.

Nafarroako Gobernuak foru lege bat aurkeztuko dio Parlamentuari, lanbide karreraren sistema haren departamentu eta erakunde autonomoetako langileei ere aplikatzeko, horiek ez baitaude aipaturiko sistema horrek orain arte garatutako arauen mende.

Zioak: Negoziazio mahaiak etengabe eta aho batez eskatu izan du lanbide karreraren sistema orokortzeko.

Berdintasunerako eskaera logikoa da, aipaturiko sisteman sartzen ez diren funtzionario guztiak egina,

Gainera, hori beharrezkoa da funtzio publikoaren estatutua berrikusteko, izan ere estatutuan ordainsariei buruzko kontzeptu zaharkituak daude, eta ondokoei buruzko irizpideak ere sartzeko: etengabeko prestakuntza, langileen sustapena, errendimenduaren pizgarriak eta administrazio publikoaren zerbitzura dauden funtzionarioen eta langileen prestakuntza.



---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

## **Foru Lege proposamena, osasun laguntza espezializatuko itxaronaldien bermeei buruzkoa.**

### *AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 129. artikuluan ezarritakoa betez, osasun laguntza espezializatuko itxaronaldien bermeei buruzko Foru Lege proposamenari aurkezturiko zuzenketak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezzen agindu dut. Proposamen hori 2007ko azaroaren 23ko 31. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko apirilaren 23an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **1. ZUZENKETA**

#### **NAFARROA BAI**

#### **PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

2. artikulua aldatzeko zuzenketa, lerrokada bat erantsiz: Onuradunak.

Hau da proposatzen den testua:

“2. artikulua. Onuradunak.

8. artikuluan aurreikusiriko ... bermeen onuradun izanen dira.

Berमतuko da kontsulta, proba osagarri edo ebakuntza kirurgiko batera bideratua izan den pertsona onuradun oro bertatik hitzordu batekin aterako dela, kasuan kasuko medikuak ezarritako epean; horrela, egungo erreserbako zerrendak deuseztatuko dira.

Zioak: Asmoa da egungo erreserbako zerrendak deuseztatzea, horrela, gaixoak lehen unetik ziurtasun osoz jakin dezan hurrengo hitzordua noiz izanen duen, azterketa medikoa, proba osagarria nahiz ebakuntza kirurgikoa izan. Neurri horri esker, gainera, gaixoen larritasun gutxiago eta lasaitasun handiagoa izanen dute, hurrengo bisita noiz izanen duten jakinen dutelako.

### **2. ZUZENKETA**

#### **UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK ETA NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA**

Kenketa egiteko zuzenketa.

Ondokoa proposatzen da: 3. artikuluko 1. idatzatiko a), b) eta c) letretan berme epea adierazten duten egunei “natural” kalifikazioa kentzea.

Zuzenketa aurkezteko zioak honakoak dira: Berme epearen iraupen egiazkoa eta eraginkorra egun naturaletan zenbatzen bada, disfuntzio garrantzitsuak sor daitezke osasun sisteman eta, bereziki, berme epeak kudeatzeko sistemetan, baldin eta epe horiei lan egutegiko egun baliogabeek nabarmen eragiten badiete.

### **3. ZUZENKETA**

#### **UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK ETA NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA**

Kenketa egiteko zuzenketa.

Ondokoa proposatzen da: 3. artikuluko 1. idatzatiko d) letrean ebakuntza kirurgikoei buruzko “bigarren mailako” kalifikazioa kentzea.

Zuzenketa aurkezteko zioak honakoak dira: Berme epe zehatzak ezartzeko beharra justifikatzen da kontuan izanik hiritarrak eskubidea daukala osasun zerbitzu egokiak jasotzeko, bere osasun eskubidea kaltetua izan ez dadin. Zuzenketa-proposamenak ez dio kalterik egiten oinarri horri, izan ere, berme epea baldintzapetuta egoteak –itxaronaldiak ezin izanen du gaixoaren osasunak okerrera egiteko arriskurik ekarri– galarazi egiten du

osasanak inolako kalterik jasatea. Ebakuntza kirurgikoak lehen edo bigarren mailako gisa kalifikatzean, zeharka aipatzen da ebakuntza horietan erabilitako prozeduren konplexutasuna handiagoa edo txikiagoa dela. Ez dute zerikusirik gaixoaren osasunarentzat izan dezaketen arrisku maila handiago edo txikiagoarekin. Hori horrela, zuzenketa-proposamenetik “bigarren mailako” kalifikatzailea kentzen bada, argi eta garbi adieraziko da epea zehazten duen osagaia dela itxaronaldiaren eta osasanak okerrera egiteko arriskuaren arteko erlazioa.

#### 4. ZUZENKETA

##### NAFARROA BAI

##### PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

3. artikuluko 1. idatz-zatiko a) letra aldatzeko zuzenketa. Itxaroteko gehieneko epeak.

Hau da proposatzen den testua:

“a) Laguntza espezializatuko kontsultak: medikuak eskatu eta 30 egun naturaleko gehieneko epean egitea bermatzen da, eta lehentasunezko kontsultak 10 eguneko epean egiten dira, ONOZeko zuzendari kudeatzailearen 857/2000 Ebazpenarekin bat.”

Zioak: Lege proposamen honetan ez dira aipatzen lehentasunezko kontsultak, eta aurretik aipaturiko Ebazpenaren bidez arautua dagoenez, eta lege honek ebazpen hori indarrrik gabe utz dezakeela ulertuz, uste dugu egokia dela lege honetan jasotzea eta adieraztea zein izanen diren epeak, hala lehentasunezko kontsultetan nola kontsulta arruntetan.

#### 5. ZUZENKETA

##### NAFARROA BAI

##### PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

3. artikuluko 1. idatz-zatiko c) letra aldatzeko zuzenketa. Itxaroteko gehieneko epeak.

Hau da proposatzen den testua:

“c) Ebakuntza kirurgikoak: medikuak eskatu eta 120 egun naturaleko gehieneko epean egitea bermatzen da. Bihotzeko kirurgiari dagokionez, gehienez ere 60 eguneko epean egitea bermatzen da.”

Zioak: Aurreko zuzenketan bezala, jaso behar duguna da dagoeneko bermatuta dagoena, eta ezin dugu murriztu; gure iritziz, legean espresuki jasota egon behar du; bestela, indargabetuta gertatu litzatekeelako.

#### 6. ZUZENKETA

##### UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK ETA NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa.

3. artikuluko 3. idatz-zatia aldatzea proposatzen da. Hona testu berria:

“Kanpoko kontsulta programatuetan, bermaturik egonen dira laguntza espezializatuko kontsultak, baldin eta azterketak ez badira, eta betiere azterketa egiteko itxaron beharreko denborak ez badu ekartzen gaixoaren osasanak okerrera egiteko arriskurik.

Azterketa izanen da gaixo bati egindakoa, jarraipena egiteko patologia jakin bati eta espezialitate horretan bertan.”

Zuzenketa aurkezteko zioak honakoak dira: Errepikatutzat jotzen dira bigarren mailako kirurgien berme epeei buruzko zuzenketa aurkezteko zioak. Bestalde, osasun azterketa zer den jasotzen duen definizioan, ez da ageri arbitrariotasun edo ziurgabetasun juridikoa adierazten duen inolako osagairik, kaltegarria izanen litzatekeena osasun laguntza izateko eskubidearentzat –eta hori beharrezkoa da osasun eskubidea gauzatzeko–.

#### 7. ZUZENKETA

##### UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK ETA NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

Gehiketa egiteko zuzenketa.

3. artikuluko 1. idatz-zatiari a) bis letra berri bat gehitzea proposatzen da. Hona testua:

“a) Lehentasunezko hitzordua: medikuak eskatu eta gehienez ere 10 eguneko epean egitea bermatzen da.”

Zuzenketa aurkezteko zioak honakoak dira: Presazkoak ez diren osasun zerbitzuei buruzko lege proposamenean aipaturiko berme epeak osatzen dira. Sistemari arintasun handia ematen zaio, eta horrela, esku hartzen duten medikuen iritziz diagnostiko azkarra duten kontsultetarako ez da itxaronaldirik sortzen.

**8. ZUZENKETA**

**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO**  
**PARLAMENTU-TALDEAK ETA**  
**NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA**  
**FORU PARLAMENTARIEN**  
**ELKARTEAK AURKEZTUA**

Gehiketa egiteko zuzenketa.

3. artikuluari 1. bis idatz-zati berria gehitzea proposatzen da. Hona testua:

“1 bis. Aurreko idatz-zatian ezarritako epeak egun baliodunetan zenbatuko dira, hau da, igandeak eta jaiegunak kanpo utzita”

Zuzenketa aurkezteko zioak honakoak dira: Bat etortzea berme epeak ezartzen dituzten egunei buruzko aurreko zuzenketekin.

**9. ZUZENKETA**

**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO**  
**PARLAMENTU-TALDEAK ETA**  
**NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA**  
**FORU PARLAMENTARIEN**  
**ELKARTEAK AURKEZTUA**

Gehiketa egiteko zuzenketa.

3. artikuluko 2. idatz-zatiaren ondotik esaldi hau gehitzea proposatzen da :

“Erregelamendu bidez zehaztuko dira 120 eguneko gehieneko epean egin beharreko prozedura kirurgikoak”

Zuzenketa aurkezteko zioak honakoak dira: Segurtasun juridikoa dela-eta, zehazki adierazi behar da zein diren 120 egun baino gutxiagoko epean egin beharreko jarduera kirurgikoak.

**10. ZUZENKETA**

**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO**  
**PARLAMENTU-TALDEAK ETA**  
**NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA**  
**FORU PARLAMENTARIEN**  
**ELKARTEAK AURKEZTUA**

Aldaketa egiteko zuzenketa.

Ondokoa proposatzen da: 4. artikuluko 2. idatz-zatiko “O-NOZeko Zuzendaritza Nagusiak” aipamenaren ordez “Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua” jartzea.

Zuzenketa aurkezteko zioak honakoak dira: Teknika juridikoko arrazoiak direla-eta, komeni da kasuan kasuko administrazio organoari esleitzea gaixoei Nafarroako Osasun Zerbitzuko beste bali-

bide batzuk eskaintzeko eskumena, baldin eta gaixo horiek arazoak izan badituzte berme epeak betetzeko zerbitzu arruntekin.

**11. ZUZENKETA**

**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO**  
**PARLAMENTU-TALDEAK ETA**  
**NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA**  
**FORU PARLAMENTARIEN**  
**ELKARTEAK AURKEZTUA**

Gehiketa egiteko zuzenketa.

Proposatzen da 4. artikuluko 2. idatz-zatian “Nafarroako Osasun Zerbitzu Publikoko beste zentro batzuk eskaini ahal izanzen dizkio” eta jarraian datorren “erantzuna emateko foru lege honetan ezarritako gehieneko epeak bete daitezzen” adierazpenen artean ondoko adierazpena gehitzea:

“edo, halakorik ezean, Osasun Zerbitzu Publikoarekin hitzarmena duten beste zentro batzuk”

Zuzenketa aurkezteko zioak honakoak dira: Horren bidez, Nafarroako osasun sistema antolatzen duen printzipioa aintzat hartzen da, zeinak Osasunari buruzko 14/1986 Legearen 90. artikuluan eta 10/1990 Foru Legeko 77. artikuluan –osasun sistema eratzen duten legeak– ezarritako arauak jarraituz, bere eskura baititu osasun baliabide publiko eta pribatu itundu guztiak. Aurreikuspen horren bidez, sistemak men egiten dio legeak erdiesteko asmoa duen irizpideari. Honako hau da irizpide hori: hiritarrari bermatzea, gehieneko epe batzuen barnean, bere osasunerako eskubiderako beharrezkoak diren osasun zerbitzuak.

Espainiako osasun sistema funtsean publikoa denez, lehentasunezko helburu hori indartu egiten da, eta honakoa ezartzen da: baliabide pribatu itunduak soilik erabiliko dira berme epeak betetzeko baliabide publikorik ez badago edo horiek berme epeak betetzeko gaitasunik ez badute. Aurreikuspen horrek, gainera, bere baldintza mugatzaileak direla-eta, ez dio kalterik egiten Espainiako osasun sistemaren publikotasunari.

**12. ZUZENKETA**

**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO**  
**PARLAMENTU-TALDEAK ETA**  
**NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA**  
**FORU PARLAMENTARIEN**  
**ELKARTEAK AURKEZTUA**

Kenketa egiteko zuzenketa.

5. artikuluko 3. idatz-zatia kentzea proposatzen da.

Zuzenketa aurkezteko zioak honakoak dira: bermerako eskubidea galtzeko baldintzak 6. artikuluan daude jasoak. Horrela, testuaren egitura hobetzen da.

### 13. ZUZENKETA

**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO**  
**PARLAMENTU-TALDEAK ETA**  
**NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA**  
**FORU PARLAMENTARIEN**  
**ELKARTEAK AURKEZTUA**

Aldaketa egiteko zuzenketa.

5. artikuluko 1. idatz-zatia aldatzea proposatzen da. Hona testu berria:

“Lege honen 3. artikuluan ezarritako itxaronaldiak gairidituko balira, gaixoak lehentasunezko eta premiazko osasun laguntza jaso ahal izanen du Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzutik, aurreko artikuluan xedatutakoarekin bat.”

Zuzenketa aurkezteko zioak honakoak dira: berme epeak gairiditu direla-eta kaltetutako gaixolari lehentasunezko eta premiazko osasun laguntza eskatu ahal izateko ekimena eskaintzea, aurreko artikuluan ezarritako baldintza beretan.

### 14. ZUZENKETA

**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO**  
**PARLAMENTU-TALDEAK ETA**  
**NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA**  
**FORU PARLAMENTARIEN**  
**ELKARTEAK AURKEZTUA**

Aldaketa egiteko zuzenketa.

Proposatzen da 5. artikuluko 2. idatz-zatiko amaieran agertzen den “erregelamenduz ezarritako baldintzetan” adierazpena ondoko testuarekin ordezkatzea:

“edo, halakorik ezean, Osasun Sistema Publikoarekin hitzarmena duten zentroetan.”

Zuzenketa aurkezteko zioak honakoak dira: berretsi egiten dira 4. artikuluko 2. idatz-zatiari buruzko zuzenketa adierazitako argudioak.

### 15. ZUZENKETA

**NAFARROA BAI**  
**PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

5. artikuluko 2. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.- Berme-sistemak.

Hau da proposatzen den testua:

“2. Aurreko idatz-zatian aurreikusitako kasuan, O-NOZak osasun laguntzako berehalako erantzuna eman beharko du, edozein osasun-zentrotan.”

Zioak: Ez dugu uste berehalako erantzuna soilik eman behar denik gaixoak hala eskatzen badu, baizik eta administrazioak berak, eta kasu honetan O-NOZak, izan behar du erantzuna ematen duena, gaixoak eskatuta nahiz eskatu gabe. Horrela, berdintasuna eta zuzentasuna bermatzen da herritar guztientzat. Gaixoak informatuta egoteko eskubidea dauka, eta O-NOZak derrigorrez bete behar du lege hori, gaixoak eskatuta edo eskatu gabe.

### 16. ZUZENKETA

**NAFARROA BAI**  
**PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

5. artikuluko 4. idatz-zati berri bat gehitzeko zuzenketa. Berme-sistema. Legea.

Hau da proposatzen den testua:

“4. O-NOZak bermatuko du Lege hau betetzen dela, eta horretarako azterketa bat eginen du giza baliabideen eta baliabide teknikoaren beharrei buruz. Azterketa zehatz bat eginen du itxaron zerrendak eragiten dituzten kausei buruz, besteak beste: giza baliabideen gabezia laguntza maila ezberdinetan, baliabide teknikorik eza edo baliabide horiei errendimendua atera beharra erabili ohi diren ordutegian.”

Zioak: Urte luzez, dirutza handia inbertitu izan da itxaron zerrenden arazoa konpontzeko edo konpontzen saiatzeko, inolako emaitza positiborik lortu gabe. Ikusita itxaron zerrenden arazoa ez dela egoeraren araberako arazoa, baizik eta egiturazkoa, uste dugu azterketa garrantzitsu bat egin beharra dagoela kausa guztiak aztertzeko eta horiei konponbidea bilatzeko. Ezin dugu egungo jarduteko moduarekin jarraitu, batetik bestera, kausa aztertu gabe, langileengan inbertitu gabe, azpiegituretan inbertitu gabe, eskaintza aztertu gabe, eskaria aztertu gabe, “peonada” izenekotan. Laburbildurik, gure iritziz itxaron zerrendek azterketa serioa eskatzen dute, eta administrazio-



ak eta sistema publikoak inplikatu beharko dute arazo hori konpontze aldera.

## 17. ZUZENKETA

**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO**  
PARLAMENTU-TALDEAK ETA  
**NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA**  
FORU PARLAMENTARIEN  
ELKARTEAK AURKEZTUA

Gehiketa egiteko zuzenketa.

6. artikuluan 1) bis idatz-zati bat gehitzea proposatzen da. Hona testua:

“1) bis. Osasun laguntza espezializatua izateko bermea galduko da, baldin eta:

a) Gaixoak uko egiten badio bere hitzorduari, edo bertaratzen ez bada, inolako arrazoirik eman gabe.

b) Gaixoak hitzordua atzeratzen badu, inolako arrazoirik eman gabe.

c) Gaixoak uko egiten badio Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak zentro bat hautatzeko egindako eskaintzari”.

Zuzenketa aurkezteko zioak honakoak dira: Logikoa denez, justifikaziorik gabeko jokabidearekin berme epeak betetzea galarazten duen horrek, bere gain hartu beharko ditu horren ondorioak, eta ezin izanen dizkio Nafarroako Osasun Zerbitzuari egotzi. Hala eginen ez balitz, berme epeen kudeaketa larriki zailduko litzateke, sistemaz kanpoko osagaiak direla medio.

## 18. ZUZENKETA

**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO**  
PARLAMENTU-TALDEAK ETA  
**NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA**  
FORU PARLAMENTARIEN  
ELKARTEAK AURKEZTUA

Gehiketa egiteko zuzenketa.

6. artikuluari 1) ter idatz-zati bat gehitzea proposatzen da. Hona testua:

“1) ter artikulua. Erregelamenduz garatuko dira justifikatutako egoera pertsonalak, artikulua honetan jasoa”.

Zuzenketa aurkezteko zioak honakoak dira: segurtasun juridikoa eta osasun baliabideen kudeaketarako eraginkotasun printzipioa dela-eta, berme epeak etetea justifikatzen duten kausak argi eta garbi zehaztu behar dira.

## 19. ZUZENKETA

**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO**  
PARLAMENTU-TALDEAK ETA  
**NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA**  
FORU PARLAMENTARIEN  
ELKARTEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa.

Proposatzen da 7. artikuluko 1. idatz-zatiko “herritar guztiek eskuratu ahal izanen dute informazio hori– kirurgiarako, kanpoko kontsultetako eta proba diagnostiko/terapeutikoetarako itxaron zerrendetan agertzen diren gaixoen kopuruari buruz, betiere Nafarroako osasun sistema publikoko zentro eta zerbitzu guztietan” testua, “Nafarroako Gobernuaren web orriaren bitartez” aipameneren ostean dagoena, ondoko testuarekin ordezkatzeara:

“–herritar guztiek eskura dezakete informazio hori– prozedura kirurgikoetarako, kanpoko kontsultetarako eta proba diagnostikoetarako gaixo-kopuruari eta itxaronaldiei buruz, Nafarroako osasun sistema publikoko zentro eta zerbitzu guztietan”.

Zuzenketa aurkezteko zioak honakoak dira: Aginduaren idazkera hobetzen da, kalterik egin gabe hilero itxaron zerrenden berri emateko betebeharrari, eta informazioaren zehaztasuna areagotzen da, itxaron zerrenden arazoa duten osasun-prozedura, -zentro eta -zerbitzuen batez besteko itxaronaldia aipatzen duelako.

## 20. ZUZENKETA

**NAFARROA BAI**  
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

7. artikuluko 1. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa: informazio sistema

Hau da proposatzen den testua:

“1. O-NOZek hilero informazioa emanen du Nafarroako Gobernuaren web orriaren bitartez eta beste hedabide ofizial batzuen bitartez –herritar guztiek eskuratu ahal izanen dute informazio hori– kirurgiarako, kanpoko kontsultetako eta proba diagnostiko/terapeutikoetarako itxaron zerrendetan agertzen diren gaixoen kopuruari buruz, betiere Nafarroako osasun sistema publikoko zentro eta zerbitzu guztietan.

Zioak: Informazioa soil-soilik web orriaren bitartez helaraztea murriztailea da herritarrentzat, izan ere badakigu mundu guztiak ez duela web orrira sartzeko aukerarik, arrazoi ezberdinak direla medio. Gainera, Nafarroako Gobernuak aipatu den

Errege Dekretua betetzen badu, pertsona oro sar daiteke bere laguntza prozesurako aurreikusitako itxaron zerrendari buruzko datu pertsonalizatueta- ra. Informazio hori bere osasun zerbitzuak emanen dio, hortaz, O-NOZak tresnak bilatu beharko ditu informazio hori herritar guztiei helarazteko, eta jakin badakigu web orriaren bitartez hori ezinezkoa dela.

## 21. ZUZENKETA

### NAFARROA BAI

#### PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

7. artikuluari 2. idatz-zati berri bat gehitzeko zuzenketa. Informazio sistema:

Hau da proposatzen den testua:

“2. O-NOZak bete beharko du maiatzaren 23ko 605/2003 Errege Dekretua, kaltetu gabe gerora Lege honetan edo Lege honen ondorengoetan Nafarroako Foru Komunitate mailan arautu daitekeena.”

Zioak: Arestian aipaturiko Errege Dekretuak oso argi uzten du bere xedapen iragankor bakarrean: Autonomia erkidegoek sei eta hamabi hilabete bitarteko epea izanen dute, hurrenez hurren, kirurgiarako, kanpoko kontsultetako eta proba diagnostiko/terapeutikoetarako itxaron zerrendei buruzko informazio sistemak egokitzeko. Alabaina, egokitze prozesu hori kontuan hartu gabe, autonomia erkidegoek Osasun eta Kontsumo Ministerioari igorri beharko dizkiote beren itxaron zerrendei buruzko datuak, sei hilez behin, 4. artikuluan jasotzen denez, Errege Dekretu hau argitaratzen denetik aurrera. Oraindik ere, Nafarroak ez du betetzen erregelamendu hori bere osotasunean; horregatik, betetzea eskatzen dugu. Baina, gure iritziz, ezin dugu informazioa utzi dekretuak xedatutakoaren menpe, baizik eta, Nafarroan beste datu batzuk jasotzea beharrezkoa dela ikusiko bagenu, hori posible izatea nahiko genuke.

## 22. ZUZENKETA

### NAFARROA BAI

#### PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

8. artikulua aldatzeko zuzenketa: Erregistroa.

Hau da proposatzen den testua:

“Nafarroako Itxaron Zerrendan dauden Gaixoen Erregistroa sortzen da, O-NOZari atxikita, 605/2003 Errege Dekretua betetzeko. Erregistro horretan..., betiere, Datu Pertsonalak Babesteko Legean ezarritakoa beteko da.

Antolaketa eta funtzionamendua erregelamendu bidez zehaztuko dira. Aintzat hartuko da apirilaren 6ko 12/1999 Foru Legea.”

Zioak: Dagoeneko adierazi denez, Errege Dekretu bat dago nahitaez bete behar dena eta autonomia erkidego ezberdinei epeak ezartzen dizkiena, eta Nafarroan ez da betetzen Errege Dekretu hori.

## 23. ZUZENKETA

### NAFARROA BAI

#### PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

9. artikulua aldatzeko zuzenketa: Sei hileko txostena:

Hau da proposatzen den testua: Osasun Departamentuak, 605/2003 Errege Dekretua betetzeko, txosten bat eginen du sei hilean behin itxaron zerrendei buruz, eta egokitze jotzen dituen eta dekretu horretan jasotzen ez diren beste datu batzuk ere jasoko ditu, adibidez: lege honek bermaturiko gehieneko epeak gainditutako eta berme-sistemei atxikitako gaixoen kopurua, eta xede horretarako jarritako zentroak. Txosten hori Nafarroako Parlamentuan aurkeztuko da.”

Zioak: Gure iritziz, txostena urtean behin egitea gutxiegi da, eta gainera, artikuluan planteatzen denaren arabera, ez denez Errege Dekretua aipatzen, informazio okerra eta osagabea izanen litza-teke, egun argitaratzen den informazioarekin gertatzen den moduan.

## 24. ZUZENKETA

### NAFARROA BAI

#### PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Bigarren xedapen gehigarria aldatzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen den testua:

“Bigarren xedapen gehigarria. Administrazioaren arioz, Nafarroako itxaron zerrendetako gaixoen erregistroan sartuko dira lege honek indarra hartzen duen unean lehen kontsultarako, azterketarako, proba diagnostiko baterako edo ebakuntza kirurgiko baterako itxaron zerrendetan dauden pertsonak.

Zioak: Gure iritziz, azterketak ere kontuan hartzeak dira.

**25. ZUZENKETA**

**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO**  
**PARLAMENTU-TALDEAK ETA**  
**NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA**  
**FORU PARLAMENTARIEN**  
**ELKARTEAK AURKEZTUA**

Gehiketa egiteko zuzenketa.

Xedapen iragankor bakar berri bat gehitzea proposatzen da. Testu hau izanen du:

“Xedapen iragankor bakarra. Ezarpena.

Lege hau pixkanaka garatuko da. Nafarroako osasun sare publikoan dauden laguntza espezializatuko zentroek beren antolamendu-egitura eta hitzordua emateko sistemak egokitu beharko dituzte, ekitaldi hau amaitu baino lehen, Foru Lege honen 3. artikuluan ezarritako gehieneko epeak bermatu ahal izateko”

Zuzenketa aurkezteko zioak honakoak dira: legegintza-neurri zuhur eta errealista da, osasun sistemaren antolamendu-egitura eta hitzordua emateko sistema egokitzea agintzen duena, eta aldi berean, agindu hori betetzeko epe egoki bat ezartzen du.

**26. ZUZENKETA**

**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO**  
**PARLAMENTU-TALDEAK ETA**  
**NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA**  
**FORU PARLAMENTARIEN**  
**ELKARTEAK AURKEZTUA**

Kenketa egiteko zuzenketa.

Xedapen indargabetzaile bakarra kentzea proposatzen da.

Zuzenketa aurkezteko zioak honakoak dira: Ez da beharrezkoa, ez baitago foru lege proposamenaren xedatutakoa aurkatzen edo ezeztatzen duen maila bereko araudirik.

**27. ZUZENKETA**

**NAFARROA BAI**  
**PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Azken xedapenetan lehena aldatzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen den testua:

“Azken xedapenetan lehena. Ahalmena ematen zaio Nafarroako Gobernuari foru lege honek indarra hartu eta hiru hilabeteko epean hartan ezarritako erregelamendu bidezko garapena eta jarraipena egin dezan. Horretarako batzorde bat eratuko da, itxaron zerrenden diagnostiko osoa egiten duena ebazpen planteamenduekin, 5. artikuluan ezarritakoarekin bat”

Zioak: Dagoeneko dagoen esperientziarekin, gure iritziz, erregelamendu bat sortzeak soilik ez du balio; horren gaineko kontrola egin behar da, eta argi dago departamentua ez dela gai bere kabuz jarraipena egiteko edo egokiro kudeatzeko. Batzorde tekniko bat sortzeari dagokionez, beharrezkoa iruditzen zaigu, izan ere errealtateak erakutsi digu departamentua ez dela gai itxaron zerrendak eraginkortasunez kudeatzeko, nahiz eta horietan dirutza handia inbertitzen ari izan. Gainera, uste dugu batzorde horrek jarraipenean esku hartu behar duela, uste baitugu departamentua bere kabuz ez dela gai; gainera, aniztasun handiagoz egiten litzateke.

**28. ZUZENKETA**

**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO**  
**PARLAMENTU-TALDEAK ETA**  
**NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA**  
**FORU PARLAMENTARIEN**  
**ELKARTEAK AURKEZTUA**

Aldaketa egiteko zuzenketa.

6. artikuluko izenburua testu honekin ordeztzea:

“6. artikulua. Bermea galtzeko edo eteteko kausak.”

Zuzenketa aurkezteko zioak honakoak dira: Proposatutako testua hobe egokitzen da ondoren proposatzen diren zuzenketetara, zeinen bidez arautu egiten diren osasun laguntzen bermea galtzeko nahiz eteteko kausak.

<b>HARPIDETZAREN PREZIOA</b> <b>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</b>	<b>IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</b> <b>NAFARROAKO PARLAMENTUA</b> «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete ..... 47,00 euro	
Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko ..... 1,25 »	
Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko ..... 1,40 »	